

Euskal AEko ospitaleetan 2013an alta emandako gaixo-kopurua zertxobait gehitu da


Haurduntzak, erditzeak eta erdiberriaroak beheraka hirugarren urtez jarraian

Eustaten datuen arabera, 2013. urtean Euskal AEko ospitaleetan 312.562 alta eman ziren, aurreko urtean baino %0,7 gehiago. Beste zenbait datu aipagarri: Haurduntza, erditzea eta erdiberriaroa, beherantza progresiboki (2013an %-7, 2012an %-4, 2011n %-1); 65 urte eta gehiagorekin artatutako pertsona-kopuruaren hazkundera (ospitalizatuen %45,4); adinarekin lotutako patologien hazkundera (begi-lausoa eta osteoartrosia).

Ospitalizatuen %97,4 Euskal AEn bizi ziren (%49,3 Bizkaian, %32,7 Gipuzkoan, %15,4 Araban); %2,4 beste probintzietan (Burgos, Kantabria, Nafarroa...); %0,1 atzerrian.

Gizonak, %48,8; emakumeak, %51,2. Talde jendetsuena, 65 urte eta gehiagokoa: 2000n %39,5 ziren, 2013an %45,4. Jenderik gehien 77 urterekin ospitalizatzen da.

Alta hartutako pazienteak, gaixotasun ugarienen arabera. 2013



Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasunaren estatistika

2013an gehien diagnostikatutako patologia, begi-lausoa, honek berriz ere jartzen dizkigularik sistema nerbiooso eta zentzumen organoen gaixotasunak ospitalizatzeko lehen arrazoi (%13,3) gisa; zirkulazio-sistemako gaixotasunak eta digestio-aparatukoak bigarren tokian (biak %12 inguru); osteomuskularrak (%9,4) ondoren eta tumoreak (%9,2).

Erikortasunean badago alderik generoen artean. Gizonen artean ugariena aparatu digestiboaren gaixotasunak (%14) eta zirkulazioarenak (%13,6) dira; lehen taldean

iztai-hernia eta behazun-harriak; bigarrenen bihotz-gutxiegitasuna eta bihotz-disritmiak.

Emakumeen artean alten %14,7 sistema nerbioso eta zentzumen organoen gaixotasunek izan zituzten, begi-lausoak nagusi; ondoren haurduntza, erditzea eta erdiberriaroa, %14,3, haurduntza aurreratua nagusi.

Gaixotasun osteomuskularrak (%9,4), laugarren, 45-65 urte bitartekoen artean nagusi, tumoreen aurretik; gizonengan belauneko asaldua dugu ugarien eta emakumeengan osteoartrosia.

Tumoreak izan ziren ospitalizatzeko bosgarren arrazoa (%9,2), gizonak eraginagoak; minbizien artean ugarienak maskuria, kolona eta emakumearen titiarena.

Alta hartutako pazienteak, gaixotasun ugarienen arabera adinari jarraiki. 2013

Adin-talde handiak	Altak guztira (*) %	Adin-taldeak			
		0-14	15-44	45-64	65 eta gehiago
Total	100	16.160	72.875	81.631	141.896
Nerbio-sistema eta zentzumen organoak	13,3	1.326	3.091	8.747	28.300
Zirkulazio-aparatua	11,7	107	3.127	9.774	23.680
Digestio-aparatua	11,6	1.623	7.959	11.650	15.120
Osteomuskularrak	9,4	468	6.561	11.777	10.676
Tumoreak	9,2	381	3.785	10.798	13.850
Arnas aparatua	8,7	3.877	4.262	4.980	14.185
Hasturak eta lesioak	7,4	1.125	5.265	6.236	10.477
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko arazoak	7,3	3	22.755	113	-

(*) alta guztien %

Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasunaren estatistika

Batez besteko ospitale-egonaldia 5,8 egun 2013an. Egonaldirik luzeena buru-nahasteek (14 egun); ondoren jaiotza-ingurukoek (11); gaixotasun infekziosoek (8,9) eta tumoreek (7,7).

Oharra: Datuak akutuen ospitaleetakoak dira. Ohiko ospitaleratzeak hartu dira aintzat, gutxienez gau batekoak eta egunean bertan burutzen direnak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

Ospitaleetako erikortasun-estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Ospitaleetako erikortasun-estatistika. Datu bankua